

MUSIK HERRIA

HERRI DISKETXEA

1.- ZER DA?

2.- NOLA SORTU DA / ZEN EGITASMO HAU?

3.- EGOERA OROKORRA (modu arinean)

4.- HERRI DISKETXEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

= gu geuk egin... autogestioa oinarrian

= izaera / definizioa

= helburuak

5.- musik(h)erria PROIEKTUAREN AZALPENA

= sakontasunezko aldaketak

· alternatiba herritarra

· kontzeptuen aldaketa

= filosofia orokorra

· guztiak parte (koop)

· aspektu legalak

· sorkuntzaren alde

· proiektu komunitarioa

· onartzeko minimoak

= Disketxearen zereginak eta "zerbitzuak". funtzionamendu koop

· taldeei / grabazioa / diskoaren edizioa / banaketa / kontzertuak /
/ promozioa/ diseinua / web orria / ...

· jendarteari / web orria / agenda / ...

· lan banaketa

= auto-kudeaketa

1.- ZER DA?

Egitasmo herritar eta kulturala musika sorkuntza, produkzio, ediziorako eta zabalpenerako da.

Musikariez osatutako egitasmoa. Musika sorkuntzatik musika zabalpenerako. Musika egiten ditugunoi eta musika gustatzen zaizkigunoi errekursoak modu errazean hurbiltzeko egitasmoa da. Laguntza kolektiboa bultzatu nahi duena. Eta musika egiteko, produzitzeko eta kontsumitzeko gaur egun dagoen eredu komertzialetik at urrundu nahi duena, beste eredu herritarragoari hurbiltzeko.

2.- NOLA SORTU DA / ZEN EGITASMO HAU?

Markinan egin ziren Gazte Mugi! topaketetan musikaren inguruko ausnarketa ezberdinak egin ziren musikari buruzko lantaldeetan. Egungo egoerari buruz hitz egiteaz gain, alternatiba berrien inguruan ere hitz egin genuen. Han parte hartu genuen jendeak hausnarketa egiten jarraitzeko, jende gehiago parte hartzeko eta zabaltzeko deialdi berri bat egin genuen, helburua: **alternatiba bat martxan jartzea, herri disketxe berri bat**. Posta zerrenda bat ireki genuen elkar komunikatzeko eta deialdi hori prestatzeko, musikasare (musikasare@lists.mundurat.net).

Maiatzak 14 Arrasaten, maiatzak 28 Gasteizen eta uztailaren 2 Bilbon egon ginen bilduta hainbat jende. musikazaleak eta musika talde ezberdinen kideak. Bilkura horietan hausnarketa jarritu zen eta proiektua sakondu genuen. Hori guztia zabaltzeko eta jendearen partehartzea errezeko zabaldu genuen probisonala izango den web horri bat (www.herridisketxearen.org). Bertan bilkuren aktak, eztabaidak, dokumento ezberdinak eta kopyleftaren inguruko informazio orokorra aurkitu daiteke.

3.- EGOERA OROKORRA (modu arinean)

- = gero ta gehiago giro komertzial batean murgilduta dago musikaren panorama
- = gero ta zailtasun gehiago daude diskoetxe arruntetik disko edo talde berriak ateratzeko
- = askotan "balore gabeko" profesionalizazio batera joaten ari da musika panoraman dauden taldeak
- = musika mundua arrunta, komertziala, putreta dago. Guztia diruaren arabera mugitzen da.
- = euskal herrian ez da mugitzen eremu berdinetan, baina askotan ere horrelako gauzak daude eta nagusitzen ari da.
- = haien merkatua produktu bat da musika, beraz, musikariak produktu bat baino ez da. Dirua ez ba duzu ematen, ez duzu lekuri merkatuan. Banaketak egiteko gauza berdina, dirua hemendik, dirua handik.
- = SGAE elkarteak ez du lekuri uzten inori. "dinosaurio pulpis-eurix" da, leku guztietara heltzen dira bere eskuak dirua eskuratzeko kulturaren pribatizazioarekin.
- = musika mundua negozio bat besterik ez da gehienetan, baina badago jendea beste modu ezberdinetan pentsatzen dugunok eta dutenak.
- = musika munduan emakumeen partehartzea eskasa da, emakumeen partehartzea ezinbestekoa da mundu honetan.
- =.....

GUK MODU ALTERNATIBO HORRETAN SAKONDU NAHI DUGU. EZ GARA LEHENAK, EZ DUGU EZER BERRIRIK ASMATU, BAINA BESTE SAIKERA BAT GARA. EMAN NAHI DIOGU AUKERA SAIKERA BERRI HONI. DENBORA ETA MUSIKA TALDEEK BALORATUKO DUTE.

4.- HERRI DISKETXEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

= gu geuk egin... autogestioa oinarrian

Gaur egun guztia merkatuzian bihurtzen ari dira. Eredu pribatua, komertziala, indibidualista eta atzerakoi honi aurre egiteko modu asko egon daitezke. Musika mundutik beste bide bat margoztu nahi dugu.

Proiektu honen ideiak nagusiak, hurrengoak dira: ideiak eta indarrak biltzea, errekursoak amankonean jartzea, ezagutza eta sorkuntza konpartitzea, egiten dugunari balio sozial bat ematea eta lan kolektiboa bultzatzea. Horrela, guztion laguntzaz bakoitzak ikasi behar du bere gauzak egiten, bakoitza bere buruaren jabe izanez, ikasten eta besteak laguntzen ere. Guztion errekursoak amankomunak jarritz, bakoitzak berea autogestionatzen ikas dezala.

= izaera / definizioa

- Musikara mugatuko den proiektua
- Euskal Herriko proiektu bat da
- Euskalduna izango da. Euskal kultura eta bereziki euskal musika bultzatuko du.
- Emakumeen papera musika munduan bultzatuko da
- Musika estilo desberdinak bultzatuko ditu
- Kopyleft-aren aldeko apustua egiten du
- Autogestionatutako proiektua eta autgestioaren aldekoa
- Musika taldeak, proiektuan, subjektu aktibo dira
- Ez da enpresa bat, eragile sozial bat baizik, herri mugimendu eta gazte mugimenduaren beste eragile bat.
- Musika munduko beste eragileekin erlazio zuzena edukiko du

= disketxearen helburu nagusiak

- Musika egiteko eta ekoizteko bitartekoak mahai gainean jartzea
- Musika mota guztien zabalpena eta ekoizpena egitea
- Musikaren balore soziala indartzea
- Laguntza kolektiboa indartzea
- Musikari alternatiboen kolektiboa indartzea
- Euskarazko musika indartzea
- Euskal herrian egindako musika alternatiboa indartzea
- Ekoizpen alternatibo eta komunitarioak bultzatzea
- Guzti horrekin lotuta dagoen ekimenak bultzatzea
- Errekurtsoak komunean jarri, lana erraztea
- Disketxea ez da egongo taldeen gainetik. Helburua da erakustea taldeei nola atera ahal den aurrera era autogestionatuaz.
- Musika mugimenduan eragitea
- Herri-gazte mugimenduko parte izanda, bertan era aktiboan eragitea

5.- musik(h)erria PROIEKTUAREN AZALPENEA**= sakontasunezko aldaketak**

Hasteko, aldatu nahi dugu zenbait kontzeptu. Ulertzeko zer planteatzen ari garen aldatu behar dugu gure buruetan baina batez ere praktikan gaur egun ezagutzen ditugun kontzeptuak.

HAU EZ DA IZANGO GAUR EGUN EZAGUTZEN DITUGUN DISKETXEAK BEZALAKOA, FUTZIONAMENDU ETA HELBURUETAN ZORROTZAK IZAN NAHI DUGU. ETA EREDU BERRI BAT MARTXAN JARRI NAHI DUGU. ZEOZER BERRIA ASMATZERA GOAZ. IKUSIKO DUGU ZELAN ATERATZEN ZAIGUN.

· alternatiba herritarra

Proiektu honek ez du ikuste bere burua beste diskoetxe arrunta bat izango balitz bezala. GUK EREDU ALTERNATIBO BEZALA EGON DIREN ETA DAUDEN BESTE HAINBAT SAIAKERAREN BIDEAN KOKATZEN DITUGU GURE BURUAK. Horrela izanda, mugimendu herritarrarekin identifikatzen gara eta musika herri mugimenduak daukan beste trenza bat bezala ikuste dugu. Beraz, alternatiba herritarra izan nahi dugu (beste batzuk dauden bezala).

· kontzeptuen aldaketa

MUSIKA		
Musikaz bizitzeaz	VS.	Musika gozatzea
Musika erabiltzea dirua ateratzeko	VS.	Musika erabiltzea gozatzeko, ondo pasatzeko eta erabilpen soziala emateko
Musika elitista izatea	VS.	Musika herritara eta eskuragarria izatea
Musikaren eskubide pribatizazioa Copyright	VS.	Musika kolektiboa eta komunitarioa Copyleft
Musikari profesionalak	VS.	Musikari profesional herritarrak
Musika doktrinatzeko	VS.	Musika egoera kritikatzeko, kontzientzia hartzeko,
DISKOETXEA		
Diskoetxearekin harremanak edukitzea lanak ateratzeko,...	VS.	Diskoetxe herritarraren parte izatea eta partehartze aktibo edukitzea
Diskoetxea eramatea zure lanaren parte bat: banaketa,...	VS.	Proiektuari aportazio xumeak egitea eta bakoitzak eramatea berea
TALDEA		
Bere proiektu musikal propioa egitea	VS.	Bere proiektu musikal propioa egiteaz aparte, proiektu kolektibo eta "zabalago" batean sartzea
Bere gauzatik begiratzea	VS.	Ikuspegi zabal batetik partehartzea proiektu batean
	VS.	

= filosofia orokorra

· guztiak parte (koop)

- = oso garrantzitsua da barneratzea sartzen denean proiektu honetan ez gara planteatzen bestelako diskoetxeekin ezagutu dezakegun harremana, bestelako harremanak planteatzen ari gara baizik.
- = diskoetxe honetan planteatzen gara ez "gurekin disko bat ateratzea" edo "diskoetxeak talde bati disko bat ateratze", baizik eta PARTE HARTZEA PROIEKTUAN.
- = proiektu honetan parte hartzea harreman berezi batzuk planteatzen gara. Ez da "zure lana aterako dugu guk" baizik eta "gure proiektuarekin elkar aurrea egingo dugu".
- = hartu eta eman kolektiboa planteatzen ari gara. Harremanak (hartu-eman).
- = proiektu honetan gauza asko erraztu daiteke baina beharrezkoa da GUZTION PARTEHARTZEA.
- = beraz, ulertu behar da hau ez dela aterako aurrera bakarrik eta diru askorekin, HAU AURRERA ATERAKO DUGU DIRU PIXKA BATEKIN BAINA GUZTION APORTAZIOEKIN (HUMANOAK, DENBORA, IDEIAK KREATIBOAK, TEKNOLOGIAK,...).
- = erre ulertzeko, planteatzen ari gara **HARREMAN KOOPERATIBO BAT**, ZUK EMATEN DUZU ETA ZUK ERE JASOTZEN DUZU.
- = horrek ez du esan nahi legalki kooperatiba bat izango garela (hori aztertze dago baina printzipioz ez), hitz egiten ari gara barne filosofiaz eta barne funtzionamenduaz.

· aspektu legalak

- = forma legal bat hartu behar izan da egin behar edo beharko diren hainbat kontu errazteko. Dauden aukerak ikusi ondoren, elkarte kultural bat sortzea erabaki dugu.
- = abokatu propioak edo gurekin modu hurbilean lan egingo luketen abokatu batzuk beharko genituzke. Aspektu legala printzipioz ondo eraman behar da, eta guk COPYLEFT formula erabiltzen badugu, denborarekin posible da arazoak edukitzea. Horretarako CREATIVE COMMONS-en –AEBtako abokatu talde bat- eskaintzen diren lizentziak hautatu dugu.



Informazio gehiagorako: www.creativecommons.org

= orain arte creative commons dituzten lizentziak hitzuli dira zenbait hizkuntzetara, eta moldaketa ezberdinak egin dira herri edo estatu horien arabera. Euskal Herria bi Estatu artean banatua egonik, epe motzean, beharrezkoa ikusten dugu gure lurraldeetan aplikatzea izango den lizentzia horien hitzulpen bat egitea. Honek kontutan hartu beharko luke bai Estatu frantseseko legedia eta bai Estatu espainolekoa.

· sorkuntzaren alde

- = musika alternatiboaren sorkuntzaren alde gaude, horregatik, saiatuko da musika estilo anitza ateratzea. Beti irizpide batzuekin.
- = bultzatuko dira ekintzak eta markoak sorkuntzarako.
- = ondo ateratzen bada proiektua, inbertsio ezberdinak egingo ziren denborarekin. Orain medio asko ez daude, baina medio horiek lortu daitezke. (grabazio estudioa, kopiak egiteko makinak, eta abar)
- = bitartean beste formula batzuk erabiliko dira

· proiektu komunitarioa

· disketxean parte hartzeko minimoak

- **Proiektu herritarra izanda, bertan parte hartuko duten guztiek inplikazio zuzena eduki beharko dute proiektuan.**
✓
- **Disketxea, herri mugimenduko beste eragile bat izanda, partaideen inplikazioa herri mugimenduan nahitaezkoa da.**
✓
- **Disketxeak ez du ezer ordainduko, bakarrik bitartekoak jarriko ditu mahai gainean**
✓
- **Copyleft-aren aldeko hautua egiten da. Beraz, era zuzenean, propietate intelektualaren kudeaketa egiten dutenekin (SGAE...) ez du zerikusirik edukiko. Musika interneten eskegiko da baina gero, taldeak beste soportea fisikoa erabili ahal izango du nahi izanez gero.**
✓
- **Gardentasuna mantenduko da gestioan zein egiten diren lanetan.**
✓
- **Akordio guztiak ahozkoak izango dira, eta konfidantza osoa egongo da bai taldean, bai proiektuan. Zeozer egin baino lehen kontrastatu behar da. Egon daitezke desadostasunak eta gaizkiulermenak modu onean**
- **Ez dira onartzen proiektu honetan homofobikoak, faxistak, sexistak edo matxistak izan daitezken taldeak**

= Disketxearen zereginak eta "zerbitzuak". funtzionamendu koop

	PROIEKTUAK (guztiok) taldeari	TALDEAK proiektuari (guztioi)
Grabazioa	Bakoitzak bere modua aukeratuko du bere lanak grabatzeko. Estudioetako sare bat osatuko da eta sare hau gurekin lan egingo zuen merkeago, proiektuarekin lan eginez.	
diskoaren edizioa	Lantegi ezberdinekin lan egingo da. Prezio onak aterako dira taldeentzako.	
Banaketa	Banaketa zerbitzu (herritarr)ak egongo dira ** BANAKETAREKIN PLANTEAMENDU BEREZI BAT EGIN BEHAR DA	Taldeak parte hartu behar zuen banaketa lanetan. Bere herrian banaketa egiten eta BESTEOK berea egiten gure herrietan.

Ekimenak Kontzertuak	Kontzertu ezberdinak antolatuko dira.	Lotzen badira kontzertu soberan, pasatu behar dira. Zentralizatuko dira.
Promozioa	Promozioa egingo da taldeentzako, gida bat osatuko da bakoitzak disketxearen izenean bere promozioa egin dezan. Lan bat ateratzen denean. Aldizkariak, prentsa, elkarrizketak, propaganda,...	Proiektuaren bozgorailu txikiak izaten eta aurkezpen bat egin behar bada...
Diseinua	Diseinatzaileak egongo dira diskoa edo materialak diseinatzeko	
web orria	Web orri orokorrean egongo da espazio taldeentzako, eta talde bakoitzak jartzeko bere orria (taldeak egin behar du edo hemen diseinatzen da)	
Materiala	Materiala diseinatzeko edo ateratzeko aukerak	
Kudeaketa-asesor	Aurrekontu lanak, asesoria lanak eta kudeaketa lanak egingo dira. Gastu gehienak taldeak asumitu behar du. Baina prezio oso onak aterako dira.	

PROIEKTUA JENDEARTEARI

Web orria	
Kontzertuak	
Musika ekoizpena	
Errekurtsoen bilketa	

· lan banaketa

= sakondu behar dugu funtzionamenduan, baina argi dago lehenengo urteetan saiatuko dela disketxeak funtzionatzea partaideon lanarekin.

= auto-kudeaketa

= proiektuaren bizitza osansuntsua izateko eta hasierako helburuak eta funtzionamendua errespetatuz dinamika auto-kudeatzaile aurrera eramaten saiatuko da.

= zenbat eta diru gutxiago gastatzen saiatuko gara, beti kalitatea errespetatzen.

= ekimen ezberdinekin diru sarrerek bilatuko ditugu.